

## Bolo jokoetan onena

Sendi Ekintza B izan da ▶ 7



# Eguraldi ona eta jende asko urteko azoka koloretsuenean

**TOLOSA** ▶ Garaiko landareak saldu ziren gehien Berdura plazan XVI. Lore eta Landare Azokan

**POZIK** ▶ Asteroko postuetako arduradunak «oso pozik» agertu dira hainbeste jende ikusita ▶ 6



Tolosako Berdura plaza lore eta landare koloretsuz eta jendez bete zen atzoko azoka berezian. NOELIA LATABURU

TOLOSA ▶

## Tolosarrak protagonista Ordiziako errugbian

Zuzendaritako kideak eta jokalaritako bat iguera lortu duen taldean ▶ 4

GEHIGARRIA ▶



OLAIA ESKITXABEL

Udaberriko moda eta edergintza eskaintza ▶ 11

TOLOSALDEA-  
LEITZALDEA ▶

## HITZA Argazki Lehiaketa, erabakita

Josu Gonzalezek irabazi du ▶ 5



Donostiako Kontxa pasealekuan atera zuen irabazleak argazkia.

## ARMA eta GIDA



### baimenak



- Zitarik gabe
- Zure tramitazioa azkartzen dugu
- Donostiarako joan-etorriak ekiditzen ditugu
- Etxean jasoko duzu baimena

R.P.S 401/04

'SAN INAZIO' MEDIKU ZENTROA

San Inazio 2 (Muñazabal Altzarien ondoan) • TOLOSA

15:30etik 19:00etara

UZTURRETIK ▶  
RAMON OLASAGASTIMingaina  
dantza  
sueltoan

Aho bete hortz geratu naiz; berritsu hitzaren sinonimo mordoak hitzik gabe utzi nau: ahozabal, antzara karrankari, berbajario, berbalapiko, berrijario, berripurdi, ele kontu, elezaku, golde mutur, hitzjario, hitzontzi, hizkilipai, kontakatilu, lapiko txiki, mihi laster, mingain luze, non-ze-berri, xardoki merke... Hitzekoa izateko ospea du euskaldunak, baina ahozko tradizioari kasu eginez, batzu-batzuk hitz askokoak ere izan dira betidanik.

Eskerrik, gainera, izan ere TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA, *Galtzaundi* eta halako komunikabideak ez zeuden garai haietan, funtzio sozial ezinbestekoa betetzen baitzuten non-ze-berri horiek. Bai Maritxu berritsuk eta bai Krixtohal ahozabalek. Aski zen mihilaster horietako norbaiten ahotan jartzea kontua —«neska batekin ikusi nian lehengoan Beltzulegiko Exteban», adibidez— etxe atarira iristerako, bizilagunak galdezko: «Exteban ezkontzekotan dela entzun dut, ez da egia izango?». Izan ere maxiatuz-maxiatuz beti zertoxo-bait loditzen baita salda. Horrik, beharbada, eltze, katilu eta laratzekin hainbesteko lotura izatea berritsukerian.

Euri kontuak, Ratzinger edo hauteskundeak aipatuko ditugu sarrera moduan, eta berehala hartuko dugu jira auzoaren soroa goldetzeko. Besteen orban eta arazoetan norberarenak ezkutatzeko. Garaiotan, gainera, bada zer jorratua: bikote banaketak ugaritzen, urteetan armairuan gordetakoak plazara ateratzen... Urliaren musikarekin arin-arin dantzatzeko dugu mingaina, norbere etxeko fandagoak eta porru-saldak isilduta. Baina ez dago kuidadorik, inor ez da salbatzen hemen, trikitilari askotako dago Euskal Herrian denok noizbait dantzarazteko.

Ni neu ere zokor mazoan aritu naiz gaur. Purrustari, elezaku honetan. Baina esan dut lehen: euskaldunok ez daukagu erremediariok eta trikitilari asko dago gurean.



## EAJ-EA irabazle eta EHAK indartsu igandeko bozketan

**ASTEKO IRUDIA** ▶ Normaltasunez joan zen igandeko hauteskunde eguna. Partaidetza hamar puntuta jaitzi zen duela lau urteko EAEko hauteskundeekin konparatuz. EAJ-EA izan zen

irabazle Tolosaldean, baina lau mila boto galduz, EHAK indartsu agertu zen eta ondoren PSE-EE, PP, Aralar eta IU-EB gelditu ziren. Argazkian, Ibarra hauteskunde mahai bat. IÑIGO TERRADILLOS

## BEATRIZ ORTIZ DE ZARATE ▶ DONOSTIAKO ORFEOIKO ABESLARIA

## «Lagun on asko, disziplina eta une ahaztezinak eman dizkit Donostiako Orfeoiak»

17 urte daramatza Donostiako Orfeoian Beatriz Ortiz de Zarate tolosarrak, eta beste hainbeste La Casa Azul jostailu dendako erakusmahaiaren atzean; bizipen ugari kontatzeko

## LEIRE MONTES

Pozik da Beatriz Ortiz de Zarate. Egiten duenak «asetu» egiten baitu. Musikak «emozioz eta alaitasunez» betetzen du. Eta jostailu artean ere umeen bizi-pozak kutsatuta dauka.

**Txikitatik izan al duzu musikarekiko zaletasuna?**

Otsailaren 4an jaiotzen, Santa Ageda bezperako koplak entzuten zirela. Betidanik gustatu izan zait musika, beharbada horregatik.

**Hodeiertzeekin sartu zinen abesbatzen munduan...**

15 urte nituela sortu zen. Ekinen polita iruditu zitzaidan eta, abestea gustuko nuenez, probatzea bururatu zitzaidan. Oso esperientzia ona izan zen.

**Nola izan da hastapen horietatik Donostiako Orfeoiara iritsi arteko bidaia?**

Hodeiertzen hiru urte egin eta, lagun batzuren bidez, Donostiako San Ignacio koruan hasi nintzen. Oso musika atsegina egiten zuten, eta aukera aparta iruditu zitzaidan. 1988an hasi nintzen Donostiako Orfeoian, 20 urte nituela.

**Zenbat lagun zarete?**

110 inguru, Gipuzkoako txoko askotarikoak.

**Tolosaldeak ordezkaritza zabaldu bertan, ezta?**

Tolosako Iñigo Vivancok eta haren alaba Iraiak, Jose Gozategik, Miren Ormazabalak eta Maria Isabel Martinek, eta Ibarra Javier Zabalak ere Orfeoian kantatzen dute. Martin da

eskualdeko beteranoa. Talde majoa osatzen dugu.

**Tolosan musikarerioko zaletasun handia dagoen seinale?**

Aldi berean abesbatza gehien izan dituen herria da Tolosa; garai batean, lau koro zituen. Baina herritarrek, oro har, bizitzen dute musika. Tradizioa dela esango nuke.

**Gazteek ba al dute afiziorik?**

Nik uste dut baietz. Orfeoian, adibidez, gazte jende dezente sartu da azkenaldian. Emakumezko gehiago gara, baina gizonetako asko ere badaude.

**Zenbat ordu eskatzen du Orfeoian aritzeak?**

Astean hiritan entseatzeko dugu, eguneko bi orduz. Emaldiak-eta ditugunean, ordea, buru-belarri aritu behar izaten

dugu prestaketetan. Orfeoiak ez du atsedenik hartzen; norberak ikusi behar du nola moldatu daitekeen egun batzuk libre hartzeko. Taldearekin egindako bidaia dira, azkenean, zure oporrak. Batzuetan, urte erdia Orfeoian pasatzen dugula esango nuke.

**Zaila izango da lanarekin uztartzea...**

17 urte eta gero ohitu egin naiz, eta moldatzen ikasi dut. Baina nekagarria da, bai.

**Sakrifizioak merezi al du?**

Nekeak eta une txarrak ahaztu egiten zaizkit berehala. Egiten dudanak asetu egiten bainau.

**Zer eman dizu Orfeoiak?**

Lagun on asko. Hainbeste ordu pasatzen dituzue entseatzeko, bidaiatzeko... Partekatzeak, elkarbizitzeko orduak dira. Disziplinari ere irakatsi dit. Eta, musikari dagokionean, une ahaztezinak eman dizkit. Askotan pentasatu izan dut gorenera iritsi naizela, baina, nire harri durarako, beti dago aurrera egiterik. Orfeoian egoteak sekulako aukerak eman dizkit: zuzendaririk eta orkestrarik onenekin aritzea, hau dena bizitzea...

**Eta musikak?**

Emozio biziak, oso politikak. Kontzentrazio handia eskatzen du; denetik entzuten eta denari erreparatzen ikasten duzu. Musikak asetu egiten nau, eta emozionatu askotan.



**PELLO ZABALA**  
ARANTZAZUKO FRAIDEA

«Ratzinger aukeratu zutela jakin nuenean, goibelaldi hits batek zorabio kolokan utzin ninduen, egia esan»



**JOSE LUIS IZAGIRRE**  
ERAKUSKETAREN KOMISARIOA

«Motorrek izan duten bilakaera ikus ahal izango da Kursaalgo erakusketan»

**IRITZIA ▶ MANUEL EGINGUREN (BOLIVIAKO BENI-KO GOTZAINA. BIDANIARRA)**

## Jon Paulo II.a eta gero?

**J**on Paulo II.a joan zaigu. Handia zen. Joan Paulo II.a oso handia zen. Bere bizitzan eta, batez ere, bere heriotzan mundu guztia bereganatu du. Telebistan ikusten genuen artista ematen zuen. Milioika gaztek txoratuta entzuten zioten. Jakina, bazekiten gazteek Aita Santuak benetan maite zituela. Ez zekien beldurra zen den. Agintariei egi zorrotzak arpegira botatzeko bazeukan bere barruan kementasun ikaragarria. Gerraren aurka eta bakearen alde hainbeste borroka egin izan du bere bizitzan. Hala ere Aznar eta Bush agintariei ez zioten kaso asko egin. Bere ibilaldi eta hitzaldi guztietan beti lehenengo jarri izan du pertsona. Beti lehenengo pertsona.

Eta laster datorrena? Joan zena joan zen. Nahiago dut datorrenarekin amets egitea. Amazonasko basoak eta erreka luze eta zabalak ameslari bihurtzen gaituzte. Bada, hara hementxe nik nahi nukeen Aita Santua, Aita Santu berria.

1. Laster datorren Aita Santuak lehenbailehen kontzilio berria antolatu dezala. Zer poza nik hartuko nukeena!

2. Emakumeari, bain munduan, eta, batez ere, Elizan, eskubide gehiago eman behar zaizkio. Aita Santu berriak

badauka nahiko lan emakumeek egon behar duten lekuan jartzeko.

3. Oraindik apaizen mendetasun handiegia dago Elizan. Herri gizonek —sekularrak— eskubide gehiago eduki behar dute Elizan, protagonismo handiagoa. Hauxe nik datorren Aita Santuari eskatzen diodana.

4. Jesukristok beti gerraren aurka, armaren aurka, jokatu izan zuen. Armak fabrikatzen gastatzen diren diru pilak munduko gosea bukatzeko izan daitezela hemendik aurrera. Hauxe Aita Santuak egunero munduko agintari guztiei gogoratu behar dien dela.

5. Lehenengo Munduak ez ditu entzun nahi Hirugarren Munduaren deia darrak; gosez urtero berrogei mila pertso-

na hiltzen dira. Aita Santua non-nahi eta beti deiadarka ikusi nahi dut problema ikaragarri hau lehenbailehen buka dadin.

6. Piztu dezala berriz datorren Aita Santuak bai Hegoamerikan, bai Afrikan eta munduko beste txokoetan Teologia de la Liberacion izenekoa.

7. Elizak haize berria behar du, askatasun handiagoa behar du. Bakoitzak pentsatzen duena esan dezala eta idatz dezala beldurrik gabe Elizaren barruan. Ez nuke nahi «kontuz, kontuz» esaten duen Aita Santua. Datorren Aita Santuari hau entzun nahi diot: «Aurrera, ez izan beldurrik».

8. Vatikanon protokolo gehiegi dago. Ea datorren Aita Santuak Ebanjelio usaina eta haizea sartzen duen gure Elizan.

Nire ametsak ez dira hauek bakarrik. Baina hauek beteko balitu Aita Santuak, nik —nahiko zaharra naiz— pozik Jainko Aitaren besoetara salto egingo nuke.

**Oharra:** Iritzi artikulu hau Benedikto XVI.a Aita Santu berria aukeratu aurretik idatzi eta bidali zuen Boliviatik Manuel Egiguren gotzain bidaniarrak.

### ESKAERAK

«Kontzilio berria antolatu, emakumeari eskubide gehiago eman, Hirugarren Munduko gosea bukatu eta Teologia de la Liberacion piztu dezala»

### PERTSONALA ▶

▶ 1968ko otsailaren 4an jaioa ▶ Tolosan; «Asunzion klinikan, Tolosar peto-peto moduan» ▶ Musika eta jostailuak ditu pasio, afizio eta ofizio

**Konpositore bat?** Bach, Mozart, Brahms, Dvorak... **Entzuteko, zer nolako musika?** Rock-a beti izan dut gustuko. Autoan askotan entzuten dut Queen, musika klasikoa ere batzuetan, etxean Frank Sinatra, eta erlaxatzeko...

### TOLOSAREN DOINUAK

«Sanjoanetako zortzikoaren doinua du Tolosak, Inauterietako dianarena; eta kanpai hotsen doinua ere bai»



**Piztiak baretzen omen ditu...** Ados nago horrekin. Nik askotan ahotik galtzen dut indarra; eskerrak musikari! [barrez]. Entsegua amaituta askoz lasaigo sentitzen naiz maiz.

**Kontzertu bat aukeratu behar izango bazenu?** Claudio Abbadorekin Suitzan, edo 2001ean Berlinen, bera gaixo zegoela, Madrilen eta Sevillan 1992an... Urtero daude kontzertu bereziak. Onena iristear dagoela pentsatu nahi dut. **Jaioterrian bertan kantatzean zer sentitzen da?**

Orfeoiarekin bitan soilik izan dut Tolosan kantatzeko aukera, 1994an Leidorren eta aurten Santa Marian; Jesusen Alaben meza interpretatu genuen, gainera, emozioz beteriko unea. Oso berezia da jaioterrian aritzea. Eta gehiagotan ez etorri izanaz damu naiz. Saiatzen naiz herriko taldeak gertutik jarraitzen. Ahal dudanean, adibidez, Santa Mariako kaperekin kantatzea joaten naiz. Oso adeitsu hartzen naute. Herriko gauzak, etxeokoa dira, eta ez ditut galdu nahi.

**Abesbatza Lehiaketa gertutik jarraitzen al duzu?**

Beharbada herritar gutxiago eta aditu gehiago joaten da orain saioetara. Baina kontuan hartu behar da punta-puntako topaketa dela. Herriarentzat altxorra da. Eta herrian jarraitu behar du. Ziur nago leku egokia aurkituko diotela. Parte hartu izan dut: 1987an Eskifaia eta San Ignacio abesbatzetako emakumezkoek osatutako taldearekin irabazi genuen, eta 1999. urtean ahots zurien atalean beste talde batekin. Bere-

zia izan zen herrian aritu eta sariak jasotzea.

**Zer doinu du Tolosak?**

Sanjoanetako zortzikoarena, eta Inauterietako dianarena. Kanpain hotsen doinua ere badu.

**Zerikusirik ba al dute musikak eta jostailuek?**

Jostailuek musika asko dute. Musikak alaitasuna adierazten du. Jostailuak eta musikak alaitzen dute umea.

**Jostailuak saltzea duzu ofizio.** Afizio ere badira jostailuak, asko gustatzen zaizkit. Gure dendak 80 urte ditu, eta belaudiz belaudaldia pasatu da. Amak 54 urte daramatza den-

dan. Nik txikitatik ezagutu izan dut hau, eta jada 18 urte egin dute lanean. Oso gustuko dit, jendearekin harremanetan egon bainaitete etengabe.

**Asko aldatu al dira jostailuak hasi zinenetik hona?**

Orain denek erabiltzen dituzte pilak, eta modernoagoak dira. Baina betiko jostailuak irauten dute. Eta nesken eta mutilen gustuak eta ohiturak desberdin izaten jarraitzen dute.

**Familiako umeak pozik izan-go dituzu...**

Asko gustatzen zaizkit umeak. Nire hiru ilobek txoratuta naukate. Haiekin nagoenean festa bat izan dadin saiitzen naiz.

ERRUGBIA ▶

# Tolosarrak Ordiziako taldean

Ohorezko Mailara igoera lortu berri duen taldean lehendakaria, zuzendaritzako kide bat eta jolaskari bat tolosarrak dira; maite duten kirolaren berri eman dute

JOXEMI SAIZAR

**T**olosar batzuk ere badute protagonismoa joan zen igandean Ayma Ordizia errugbi taldeak lortu zuen Ohorezko Mailarako igoeran, Ordiziako Trevijano zelaian Madrilgo Liceo Francesi 17-3 irabazita. Joaneke partiduan 17-10 galdu zuten Madrilan. Lehendakaria —Eugenio Iruarri, ordiziarra jaiotzez, baina aspaldidanik Tolosan bizi eta harategi bat duena—, zuzendaritzako kide bat —Koldo Cid tolosarra, lehendakaria izana lehen ere— eta jolaskari bat —Igor Ortiz tolosarra, taldeko talonadore titularra— dira protagonistak horiek. Beraiekin izan da HITZA, igoera nola bizi duten jakiteko.

Duela bi urte 1. B Mailara igo zen Ordizia. Orduan hiru tolosar ziren jokatzeko: Igor Azpiz, Asier Zeberio eta jarraitzen duen Igor Ortiz. Lehenengo biek taldea utzi behar izan zuten lanagatik edo beste arrazoi batzuegatik. Koldo Cid zen orduan taldeko lehendakaria.

Lehenengo denboradia izan zuten aurrekoa 1. B Mailan. Hala ere igoera lortzeko gutxi faltatu zitzaizkien. Universidad de Salamanca igo zen eta puntu bakarrera gelditu ziren. Aurten aldaketa batzuk izan dira.

«Gure maila bi multzotan banatu dute, Espainiako iparraldea eta hegoaldea, federazioak hala proposatuta. Horrek bidaletako gastuak murriztu egin dizkigu. Iaz hamar talde sendo baldin bazeuden, aurten lau bakarrik zeuden. Besteek ez lukete maila horretan egon behar. Kirol arloan tentsioa mantentzea zailagoa izan zaigu eta adiskidetasunezko partiduak jokatu behar izan ditugu tentsio hori mantentzeko», azaldu du Eugenio Iruarri lehendakaria. Bere multzoan USAP Barcelona igo da ordiziarrekin batera.

Ordiziako errugbi taldeak harrobiaren aldeko apustua egin du beti. Goierri inguruko-



Eugenio Iruarri ezkerrean eta Koldo Cid direktiboak. J. SAIZAR

ak dira jolaskari gehienak. «Oso ondo integratu diren» bi argentinarrak ditu —Marcos Amaya eta Angel Hipolito— eta Eibar eta Arrasateko taldeetatik fitxatutako beste hiru jolaskari.

## Talde ez profesionala

Denboraldiaren hasieratik goiko postuetan mantendu dira, multzoko *oilartxoak* ziren USAP eta Hospitaletekin batera. «Taldea horiek profesionalak dira, dozena bat atzerritar dute. Frantziako Ligako Perpignan taldeak babesten du USAP. Gure jolaskariak ez dira profesio-

sionalak. Bakoitzak bere lana du errugbitik aparte. Dirua jarri behar izaten dute. Eta datorren denboraldian, nahiz eta igo, hala jarraitu beharko dugun», dio lehendakariak.

Aurreko igandekoa «urte askotako lanaren emaitza» eta «festa handia» izan zela diote Cidek eta Iruarriek: «Urduritasuna bagenuen. Bazkalondoren arte ez ginen jabetu igoera lortu genuela». Datorren igandean finala jokatuko dute Zaragozan USAPen aurka, baina horrek ez du eraginik igoeran. Adiskidetasunezko partidu batzuk ere izango dituzte denbo-

raldia bukatu aurretik. Atsedeenaren ondoren, abuztuaren bigarren erdialdean berriro lanean serio hasiko dira maila berriari aurre egiteko. «Taldea berak jarraituko du, baina fitxaketa batzuk egiten saiatuko gara, nahiz eta diru askorik ez izan», dio Cidek. Hamar talde dira Ohorezko Mailan eta bidaia luzeagoak izango dituzte: Madril, Valladolid, Valentzia, Sevilla... Gastu handiagoak izango dituzte eta babesleak lortzen ere lan handiagoak. «Hor bi liga izango dira, talde profesionalena eta besteona. Mantentzearekin eta mailan finkatzearekin nahikoa izango dugu», diote zuzendaritzako bi kideek.

## Ikastetxei gonbitea

Bitartean, harrobiaren lan garrantzitsuarekin jarraituko dute Ordiziako errugbi taldekoek, «mortasuna ez galtzeko». «Goierriko eta inguruko ikastetxeetan ikastaroak ematen ditugu eta gero zaletzen diren gure eskolan sartzeko aukera izaten dute. 9-10 urtetik aurrerako gaztetxoak ditugu. Tolosaldean ere ikastetxeren batek interesa izango balu oso gustura emango genuke ikastaroa», diote. Lurraldekako mailan beste talde bat dute, araudiak hala eskatuta.

«Kirol noblea, ez baztertzaila, denek lekua dutena, gorpuzkera guztietako jolaskariak behar direlako». Hala definitzen dute errugbia. Eta normalean lesio asko ez dela izaten erantzen dute.

IGOR ORTIZ ▶ ORDIZIAKO ERRUGBI JOKALARI TOLOSARRA

## «Oso zaila da Tolosan errugbi taldea sortzea»

Hamar urte daramatza Igor Ortiz tolosarrak errugbian jokatzeko. Lehen biak Tolosan bertan eta gainontzekoak Ordizian. Titularra izan da lesioek utzi dioten partidu guztietan.

**Nola hasi zinen errugbian?**  
Lagunen bidez Tolosan anaiekin batea. Aita ere aritu izan da Nafarroako unibertsitatean.

**Gogorra al da?**

Bai. Normalean ez da ezer gertatzen, ez da lesiorik izaten, baina nik zorte txarra izan dut eta hiru aldiz hautsi dut masaila eta sudurra ere bai. Zer egingo diogu bada?

**Zein da zure postua?**

Talonadorea deitzen diogu. Bi izaten gara. Meleetan lehen lalarran jarri, hanka sartu eta baloia atzera ateratzen dugu. Sa-keak ere guk egiten ditugu. Indarra behar dugu.

**Nola prestatzen zara?**

Denak batera prestatzen gara. Gimnasio gehiago behar dugu, pesak eta.

**Nolako berritza errugbi talde bat Tolosan?**



J. SAIZAR

Oso zaila da. Ez da kirol ezaguna eta diru eta lan asko egin behar da.

**Ordizian jarraitzeko asmo-tan?**  
Bai.

**Nolakoa izango da hurrengo denboraldia?**

Mantentzen nahiko lan izango dugu.

**Gustuko taldea.**

Irlandako selekzioa. ◀



# Villabona - Kultura

— HAUR ANTZERKIA —

MARKELIÑE TALDEA

## ‘Igandeetan, PIRATEK jai’

antzezlan

Apirilak 24 igandea • arratsaldeko 17:00etan

**GUREA ARETOAN**





Udal Kultura Batzordea



Gipuzkoako Foru Aldundia  
E.A.S. (Euskadiko Antzerki Sarea)

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶

# Josu Gonzalez izan da HITZA Argazki Lehiaketako irabazlea

Bigarren saria Ramon Garmendia ibartarrak lortu du eta higuirena, Maider Muñagorri tolosarrak



1. saria. Josu Gonzalez Arsuaga tolosarrak Donostiako Kontxa pasealekuan ateratako argazki hau aukeratu dute HITZako irakurleek irabazle gisa. Berrobiko Iriarte jate txan bi lagunentzako afaria irabazi du.



## Batasunaren balorazioa EHAkren emaitzekiko

**TOLOSALDEA** ▶ Tolosaldeko Batasunak igandeko hauteskundeetan EHAkren emaitzekiko balorazioa egin zuen herenegun prentsaren aurrean. Alderdi horri botoa eskatzerakoan «ahalik eta boto gehien lortzea» zuen apustu, «alderdi guztien antzera». Boto horien balioa hiru ideien inguruan azpimarratu zuen: «Ezker abertzaleak abian zuen azken hilabeteetako ildo politikoa indartzea; ilegalizazio itzelari erantzuna ematea eta bere porrota agerian uztea; eta gatazkaren irtenbide demokratikoaren aldeko hautua indartzea *Demokrazia eta bakea* leloari jarraiki. Tolosaldean, 2001eko datuekin konparatuz, alderdi guztien «beherakada» eta EHAk «alderantziko kasua» izan dela seinatu zuen. Botoak eta «ilegalizazioaren ondoren horrelako erantzun sendo eta indartsua» eskertu zituen eta hurrengo kurtso politikoiari begira «konfidantza eta indarra» eskainiko omen dio. Emaitza horiek «ilegalizazioari aurre egin eta irtenbide demokratikoa bultzatzeko» zuzenduko dituela esan zuen Batasunak. HITZA



2. saria. Ramon Garmendia ibartarrak Udalaizetik Anbotara begira ateratako irudia. Adunako Zabala sagardotegian bi afari lortu ditu.



3. saria. Maider Muñagorri Donostiako Haizeen Orrazian ateratako argazkia. Leaburuko Mahala baserriko produktu sorta irabazi du.

**50 IBILBIDE  
FAMILIA ETA LAGUN ARTEAN**

Apirilaren 24tik aurrera

egunero ibilbide bat DOAN BERRIArekin



Laguntzaileak:



Euskaldunok behar dugun

**berria**

## TELEFONOAK ▶

## LARRIALDIAK

## ▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoetaldia.** Medikua: 65 23 39  
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23  
**Berastegi-Elduain.** 68 33 61  
**Ibarraldia.** Osasun etx.: 672411  
**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111  
 ▶ San Esteban: 00 68 00  
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00  
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99  
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58  
 ▶ DYA: 67 25 36  
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88  
**Villabona.** Anbulat.: 00 69 70  
**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**Gaur.** Orlarrea, J. Martin Jose  
 Iraola 10 (Tolosa). 943 67 24 38  
 Erbiti, O. Lizarraga 7 (Leitza) 112  
**Bihar.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia  
 7 (Tolosa) 943 67 06 48  
 Gimeno. Elbarren 52 (Leitza) 112

## TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
 tolosaldean\_publi@tolosaldeko  
 hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 -  
 687 41 00 33.  
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info  
**Villabona-Aitz.** 687 41 00 22.  
 villabona-aiztondo@tolosaldeko  
 hitza.info  
**Anoetaldia.** 687 41 00 22  
 anoetaldia@tolosaldeko-hitza.info  
**Ibarraldia.** 687 41 00 32.  
 ibarraldia@tolosaldeko-hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info  
**Leitzaldia.** 687 41 01 18.  
 leitzaldia@tolosaldeko-hitza.info

## iragarki laburrak ▶

## LANA

**Igeltseroa.** Mutil bat behar da,  
 igeltseritzako ofiziala 2.  
 mailakoa. Deitu 615 74 86 61  
 zenbakira.

## ALOKAIRUA

**Hondarribia.** Udarako etxea  
 alokairuan. Familientzako  
 egokia. Deitu 670 977 311era.

## EROSGAI

**Lursaila.** Larrerako lursaila  
 behar da. Iluntzetan deitu 943  
 65 04 91era.

## XVI. LORE ETA LANDARE AZOKA ▶

NOELIA LATABURU

Tolosako zeruak etenaldi txikia eskaini zuen azkenik atzo goizean. XVI. Lore eta Landare Azoka jasotzeko. Jende andana hurbildu zen, eguraldi onak bultzatuta, Berdura plazan atondu zuten azoka ikustera. Goizean goiz hasi ziren saltzailak lanean eta azoka itxi zen arte, 14:00ak aldera, ez zuten atsedetik izan.

Denetarik izan zuten aukeraren erosleek; lore moztua, landare eta zuhaixka aromatikoak, lore sorta naturalak, denboraldiko loreak, hala nola geranioak, alegriak, begoniak, lobeliak eta krabelinak. «Gehienbat denborako loreak saltzen ari gara, udaberriaren etorrerarekin jendeak kolorea nahi baitu bere etxeetan», azaldu zuen Luis Aginaga saltzailak. Bestalde, prezio ezberdinak zeuden landare eta lore eskaintzaren barruan; txikienek 0,75 euroko prezioa zuten, handienak, berriz, 90 eurotaraino heltzen zirelarik. Bertako lorezainen esanetan, «erosterakoan jendeak prezioari begiratzen dio, baina orokorrean edertasunari egiten diote jaramon».

«Zein da egokiena? Eta zer temperatura behar du? Koloretzurik ba al duzu? Zenbat balio du?...» Galdera hauek guztiak behin eta berriz erantzun behar izan zituzten «gustura» atzo postuetan zeudenek. «Baten batzuk ideiak argi dituzte eta lore edo landare zehatzak erostera etortzen dira»; hala ere, gehientsuenek aholku eske aritu ziren, euren etxeetako baldintzetara hobekien egokitzen ziren landarearen bila. Saltzailak, urtero azoka berezi honetan izantzen direnak, ez ziren hainbeste jende ikustearekin harritu eta azokaren arrakasta «ohikoa» dela ere aitortu zuten. Jendea ondo artatzea garrantzitsua dela azpimarratu dute, «dena ondo joan dadin».

## Ohiko postuetakoak «pozik»

Larunbatero Berdura plazan baratzeko landareak saltzen aritzen direnak ere atzo izan zuten tarterik XVI. Lore eta Landaren Azokan eta «oso pozik» azaldu ziren hainbeste jende ikusita. «Gure salmentak

# Eguzkia eta jendea protagonistak urteko azoka koloretsuenean

Jende ugari gerturatu zen Berdura plazara goiz guztian zehar; denborako landareak saldu ziren gehien



Jendea hango eta hemengo lore eta landareei begira, hoberena zein izango ote. N. LATABURU

antzekoak izaten dira astero, baina eguraldi ona eta azoka berezia dela eta, aurreko asteetan baino lan handiagoa izan dugu gaur», aitortu zuten postu hauetako langileek eta bearaiek «betiko produktuak» saldu dituztela azaldu zuten.

Halaber, bertara hurbildu ziren begiluze eta erosleak gustura azaldu ziren eskaintzarekin zein saltzailen portaerarekin. Adin eta toki ezberdinetako jendea ikusi ahal izan zen plazako postuetan gora eta behera. Bada, atzotik aurrera asko dira euren etxeko txoko ezberdinak denborako loreen kolore alai eta biziez apaindu dutenak.



Lore sorta ederrak ikusi ahal izan ziren atzo Berdura plazan. N. L.

## iragarki laburrak ▶

## Laguntzaile administratiboak.

Leku libreak: Hernani, Usurbil, Beasain, Altzo, Bergara, Sorraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Informatu: 943 43 41 27.

**Haur Hezkuntza.** Gaztelerako 106 leku, euskarako 52. Doako

informazioa. 943 43 41 27.

**Fisioterapeutak.** Laboratorioa, argi-izpi teknikoak, erizain laguntzaileak. Hurrena sartzeko: osasunbidea, erakunde publikoak. Informatu: 943 43 41 27.

**Sukaldeko laguntzaileak,**

sukaldariak, tabernariak. Leku libreak: ikastetxeak, erresidentziak, Eusko Jaurlaritza. Informatu: 943 43 41 27.

**Peoiak.** Igeltseroak, soldadoreak, mantenimendua. Leku libreak: Hernani, Arrasate, Arama, Errenteria,

Antzuola, Zerain, Mendaro, Villabona. Informatu: 943 43 41 27.

**Gidariak.** Hurrena sartzeko: udaletxeak, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia. Doako informazioa.

Informatu: 943 43 41 27.

**Irakasleak.** 465 leku libre. Hurrengo

deialdiak. Informazioa doan.

Informatu: 943 43 41 27.

**Udaltzainak.** 25 leku libre udaletxetarako: Eibar, Mutriku, Ordizia, Beasain, Hernani, Iruñe, Arrasate. Informazioa doan. 943 43 41 27.

**AZOKA ▶**

## Giro izugarria eta ikusteko moduko azoka berezia

Lore eta landare eskaintza anitza; ia 100 kilo ziza ere salgai izan dira

PABLO ALBERDI

Eguraldiak izugarri lagundu zuen atzo, lore eta landareen azoka berezian. Oso giro ona bizi izan genuen eta ikusitako guztiak, benetan, merezi zuen.

Berdura plazan oso eskaintza zabala izan zen. Postuetan landare berri asko izan ziren, barrukoak eta kanpoan edukitzekoak. Ar-bola txiki asko, landare aromatiko eta mota askotako lore sortak ere izan ziren. Postu hauen ondoan, baratarako landareenak ere bazueden, eskaintza zabalarekin. Guztiak, udarako landatzeko prest dauzkate.

Zerkausian, berriz, ia 100 kilo ziza agertu ziren, prezioak nabarmen jetsiz lehengo asteko 140 eurotik 40ra, kalitate oneko produktua izanik. Onddo batzuk ere agertu ziren, 10 bat kilo, 24na eurotan saldu zirelarik.

**ATZOKO AZOKA ▶**

Berdura plaza merk.	gares.
Lore sortak	
Krabelina	4,80 -
Lilia	1,20 -

Landareak		
Geranioa	1,90	2,50
Gineako alegria	3,40	?
Erromeroa	4,00	6,00
Zintziiko hiedra	2,40	6,00

Plantula		
Piper borizeroa	0,20	-
Porrúa	2,40	-

Bertako produktuak		
Abereak		
Indioiarrak	4,30	-
Antzara	11,00	12,00

Barazkiak		
Tomatea	3,00	4,50
Tipula	0,80	1,00

Besteak		
Irasagarra	3,00	6,00
Artisau ogia	2,29	2,97

Produktu biologikoak		
Barazkiak		
Tipula	1,75	2,00
Ahuntz gazta	3,00	-

**IBARRA ▶ OLINPIADA TXIKIAK**

# Estu estuko aldeak daude sailkapenean

Sendi Ekintza B-k lortu du bola jokoko garaipena, 19 bolo irauli ondoren

JAIONE ASTIBIA

XII. Olinpiada Txikien azken jardunaldiari ekiteko prest, goiz goizetik hasiak dira ekinean ibartarrak: 8:00etan ibilaldi neurtuarekin hasi, eta eguerdian, 12:30etik aurrera sukaldaritzak lehiaketa izanen dute, gero parte-hartzaile guztiak elkarrekin eginen duten bazkariarekin bukatzeko. Hau guztia, San Bartolome plazan dute egitekoa.

Bitartean, atzokoan askotarioko jokoz betetako arratsaldea izan zuten. Aurreko asteburuan egiterik izan ez zuten bola jokorekin eman zioten hasiera. Jokoetan parte hartzen ari diren 13 taldeetako bikoteek, launa tiraldi egin zituzten: egurrezko edo plastikozko bola bat aukeratu, balantza batzuk eragin eta atereran zurezko ohola ukituz botaz, pistaren erdialdean dagoen amona ukitu gabe eta barrenkaldetik igaroz, bolalekuaren beste muturrean dauden 9 boloetatik ahalik eta gehien iraultzea da helburu, beti ere, bola bolalekutik atzera igarotzen bada. Indarra, taitua eta «batez ere trebezia», omen dira beharrezko, han bertan ziotenez.

Kontuak kontu, bakoitzak egindako lau tiralditak txarra kenduta, bikoteak orotara botatuko bola kopurua da puntuatetarako baliagarri. Atzokan, 19 bolo iraulita, Sendi Ekintza B-k eskuratu zuen lehen postua; 18 eta 17, egin zituzten, berriz, elkarte bereko A taldeak eta Ibarako Kirol Elkartea B-k. Azken hauxe zen, gainera,

une hartan sailkapen orokorreko buru, Xepla Ak jarraituta.

Ondoren, Gazte Asanbladak prestatutako ez usteko jokoak izanen zituzten eta ardo dastaketa frogak, bukatzeko; «ura ote?, ardo ote?, Asmazan/k!».



Bolarekin ahalik eta bolo gehien iraultzera, amona ukitu gabe. J. ASTIBIA

**nolako ikasketak  
halako lana**

---

**GOI ESKOLA POLITEKNIKOA**  
ARRASATEko Campusa

Lehen zikloa

- Industri Elektronikan Ingeniaritza Teknikoa,
- Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa,
- Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa,
- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa,
- Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa,
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa (Telematika eta Telekomunikazio Sistemak).

Bigarren zikloa

- Automatika eta Industri Elektronikan Ingeniaritza,
- Industri Antolakuntzan Ingeniaritza,
- Informatikan Ingeniaritza,
- Industri Ingeniaritza,
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza.

**GOIERRIKO Campusa**  
Lehen zikloa

- Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.

JARDUNALDI IREKIAK

---

**ARRASATEko Campusa**  
943 71 21 92

- maiatzak 5, 17:30etan,
- 2. zikloa: maiatzak 26, 17:30etan,
- Biteri Kasteixe Nagusia: ekainak 11, 11:00etan.

---

**GOIERRIKO Campusa**  
943 88 00 62

- apirilak 28, 17:30etan.

---

**ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA**  
OÑATIKO Campusa

Lehen zikloa

- Zuzendari Idazkaritza.

Ziklo luzea

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura.
- Finantza Zuzendaritza,
- Merkataritza Zuzendaritza,
- Erakunde Kudeaketa.

**BIDASOAKO Campusa**

- Enpresa Zientzietan Diplomatura,
- Nazioarteko Merkataritza,
- Enpresa Logistika eta Garraioa.

JARDUNALDI IREKIAK

---

**OÑATIKO Campusa**  
943 71 80 09

- maiatzak 12, 18:00etan.

---

**BIDASOAKO Campusa**  
943 63 91 29

- maiatzak 7, 10:00etatik 13:00etara.

---

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**  
ESKORRIATZAKO Campusa

Lehen zikloa

- Irakaslea, Haur Hezkuntza espezialitateak,
- Irakaslea, Hezkuntza Berezia espezialitateak,
- Irakaslea, Atzerriko Hizkuntza espezialitateak,
- Irakaslea, Heziketa Fisikoa espezialitateak,
- Irakaslea, Entzumena eta Mintzaira espezialitateak,
- Irakaslea, Lehen Hezkuntza espezialitateak.

Bigarren zikloa

- Psikopedagogian Lizentziatura.
- Hizkuntza Psikopedagogia,
- Esku-hartze Psikopedagogikoa.

Ziklo luzea

- Giza Zientziak Lizentziatura.
- Giza Zientziak Enpresari aplikatuta,
- Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari aplikatuta.

JARDUNALDI IREKIAK

---

**ESKORRIATZAKO Campusa**  
943 71 41 57

- maiatzak 19, 18:00etan.

*inskripzio epea zabalik*

[www.mondragon.edu](http://www.mondragon.edu)







OLAIA ESKITXABEL / HITZA

## ITXURA ZAINTEKO AUKERAK

Janzkera, gorputza, ilea... zaintzeko eskaitza zabala aurki daiteke eskualdean; udaberrian eta udan arreta handiagoa ematen diogu gure itxurari

*Killah* FREESOUL ONLY

# ZUNBELTZ

Letxu kalea, 8 • TOLOSA • Tel.: 943 67 48 32  
San Frantzisko, 23 • TOLOSA • Tel.: 943 65 57 19

SKUNKFUNK ENERGIE MISS SIXTY

# GUSTUAK ADINA AUKERA

Udaberri eta udarako proposamen ugari ikus daitezke erakusleihoetan; batzuk, modako jantziak, koloreak... proposatzen dituzte, bestek eskaintza personalizatua josten dute



Eguraldí onarekin kolore bizia egiten animatzen da jendea; modan dauden koloreak edota norberaren gustuak aukeratzeko dituzte. © J. SAINZA

Udaberriko eta udarako proposamen berriak erakusgai daude dendetan. Modan dauden jantziak, zapatak, koloreak... Iragarri dituzte, eta toki gehienetan joera horren eskaintza egiten badute ere, badaude bestelako publiko bati begiratzen diotenak ere. Tolosaldeko arropa dendak bi-

sitatu zuten gero, askotariko aukerak eta eskaintzak dauzela ikus daiteke kanterako estalioak adina. Izan ere, norberak jantzeko estilo propioa du eta horretara egokitu den dendetara joaten da. Datoren hilabeteetan soinean eramateko hainbat proposamen espezializatu dituzte.

du du Oihana Ugarte: «Sormen momentuan ateratzen zaiguna egiten dugu. Askotan pentsatzen dugu zer baita funtzionalitate duela eta gero jendea ez da horretan pentsatu bezainbeste fijas eta alderantziz».

### Produktu personalizatua

Erakuslehoi gehienetan nabaritzen den modak ez diete eragiten. Izan ere, Tartakoa aurkitu daitezkeen kamisetak, poltsak... Lopezek eta Ugartek egindako marrazki personalizatua dituzte, ez daude beste izen.

«Arropa lisoak erosi behar ditugu guk gero marrazkiak egiteko eta erabiltzen dugun pintura dela-eta kotoi kopuru altua izan behar dute. Horrek gure eskaintza mugatzen du, zentzu batean. Hala ere, jantziak poltsak, koloretuak... izan saiatzen gara», dio Lopezek. Eta, hori bai, egiten duden lan bakortzean emimo eta mai-tasun asko, jartzen dituzte zehaztu du Ugarte.

Lehendik dituzten eta gehien estimatu ditugun marrazkiak mantendu eta berriak sortzen saiatzen direla ere azaldu dute. Azken finean, beraien helburua eadim guztizteko jendeak beraien marrazkiak, gaurko modak eta gustuak da.

Hala ere, azken aldiak egiten duen eguraldiarekin haserre samar aurkitu ditugu Elxabetz Lopez eta Oihana Ugarte. Tartakoa arduradunak: «Eguraldí onarekin gehiago animatzen da jendea erosketak egitera eta baita kolore bizia egiteko, ausartagoak jantzeria ere», dio Lopezek. Azken finean, hori den joera psikologikoa dela iruditzen zaio.

Marrazkiak, produktu desberdinak... egitekoan inuitziboki funtzionatzen dutela azal-

izango dute bertratan direnek.

### Modako joera

«Kolore askoko erropak daude modan», azaldu du Zumbeltz dendako Imanol Aldazabalek, udaberriko eta udarako proposamenen berri emateko eskaintzen. Eta kolore bat aukeratzekoan, dudarik gabe, pistatxo kolorea nagusitzen dela gaineratu du.

Aurreko urteetako joera jarraituz, aurtien ere, neskontzat zein mutilentzat udaren fresko ilbidezko gaitza puntak eskaintziko dirala azaldu du. Horretaz gain, lizan ohikoak diren jantziak, «hippy antzekoak direnak» indarrez sartu direla eta asko eramango direla aipatu du Aldazabalek.

Aurreko urteetako modan haustura ere aurkitzen dela azaldu du, bestealde: «Kanpaldun gaitzak alde batera utzi eta korte zuzenakoen, kanpai gabekoen garaia iritsi dela esan daiteke».

Sasoi honetan beti modan dagoena bakoera da. Eta, aurtien ere sasoi betean datorrela azaldu du. Estilo informaleko arropa ikusle da kaleetan: amerikana motzak, niak...

### Beste lido bat

Ureko moda bete-betean jarraitu gabe, erakuslehoi gehienetan ikus daitezkeen jantziak aldatzen dituztenak. Eta egunero jantzeko jantziak gain, egun bereziarako jantziak, ere badituzte: estilo informalekoak izaten dira eta ez egun batean soilik erabiltzekoak, gehitu du. Azken boladan, koloreduen gaitzak asko eramanen dirala azaldu du. Koloreei dagokionez, askotariko koloreen eskaintza badago ere, «egunero, berenizki, kolore beltzeko jantziak asko saldu ditugu; berde gamak eta laranjak ere asko eramanen dira».

### ELIXABET LOPEZ

TARTAKO

«Eguraldí onarekin gehiago animatzen da jendea kolore bizia egiteko, ausartagoak, jantzeria»

### IMANOL ALDZABAL

ZUMBELTZ

«Estilo informaleko arropa, gaitza piratak eta libzako jantziak, hippy estilokoak, daude modan»

### EIDER URRATE

TINKO

«Jantzi eramangarriak eta urbano estliokoak eskaintzen ditugu; hori salneurri egokian saltzen saiatzen gara»

### OIHANA UGARTE

TARTAKO

«Sormen momentuan ateratzen zaiguna egiten dugu; mai-tasun eta mino asko jartzen dugu gure lanean»

# Kanpoko itxura, puntu-puntuan

Gorputzaren aurkezpenak garrantzi handia du askorentzat eta hori lortzeko tratamendu desberdinetara jotzen dute



Bezero asko izaten dira edergintza tratamenduetan egitera gerturatzeko direnak. © J. SAINZA

Beroa iristerek batera, arropa gutxiago eraman da soineak; gorputza gehiago erakusleko sasoi izaten da. Hori dela eta, asko dira tratamendu desberdinetara jotzen dutenak. Batzuk, solarium sartu eta kolore beltzara hartzea jotzen dute: «Ezkontzeara joateko edota operatara joan aurretik gero eta jende gehiago etortzen da solariumera», azaldu du, esaterako, Shuyana edergintzako Miren Ibarzabalek.

Deplazazaren kontua oso zabaldua dago. Argizari bidezko deplazazioarekin batera laser bidezko ere gero eta gehiago eskaintzen dela azaldu du Ibarzabalek. Zelulitisa kentzeko, likidoa

gaitzeko... tratamenduen eskara nabarmen igotzen ari omen da. Horrekin lotuta, «horrelako tratamenduetan egiteko aurretik bezeroaren azterketa orokorra egiten dugu, gehiegiz hori nolakoa daterren aztertzeak», dio Ibarzabalek.

### Hainbat tratamendu

Zelulitisa gutxitzeko bentosa edota ultrasoinu bidezko tratamenduetan erabiltzen dituzte Shuyana edergintzan. Zirkulazioa hobetzeko edota likidoa gaitzeko, berriaz, alga bidezko estalutzean oinarritutako tratamendua da ohikoena. Alga bidezko tratamenduen eskara nabarmen igotzen ari dela azaldu du Ibarzabalek em-

kumezko zein gizonezkoen partetik izaten dela gaineratzearen batura. Haurra izan ondoren, aurretiko gorputz itxura berreskuratu nahian, gero eta emakume gehiago jotzen dute antzeko tratamenduetara.

Tratamendua egin ondoren zainduz gero, aipatutako tratamendu horien emaitza ona dela jakinarazi du, amatezko, Shuyana edergintzako arduradunak.



Lahaga, 45 • URETTU • 943 72 90 35  
**ZURE ARROPA DENDA**  
 Erremontari, 38 • TOLOSA • 943 11 00 77

**Discos - Sertoria**  
 Kabieta - Jantziak  
 Zure Denda Lertze Jantziak  
 Nagu jantzi, 10 • 943 01 49 90  
 www.kabieta.com

**Marek**  
 Jantziak eta akcesorioak  
 Marek, 4 • Tolosa • 943 07 02 77

**ARALAR KIROLAK**  
 TOLOSA: Laskotari, 7 • 943 65 49 16 Fax: 943 64 17 27  
 DONOSTIA: Marino Tabojo, 6 • 943 32 35 94 Fax: 943 65 17 27

**IXABEL**  
 Haur, gazte eta emakumezkoen onak eta osasunak  
 Ixabel, 18 • TOLOSA • Tel: 943 07 02 77

**ORLA BOUTIQUE**  
 Eskolapiak, 3 TOLOSA Tel: 943 67 44 17

**LIZARRIBAR OINETAKOAK**  
 Arostegiola kalean • TOLOSA

**ESKAITZAK**  
 Ospakizunetarako berezia: Ezkongoiak, amabitxiak, jaunartzeak. Gorputz eta aurpegi tratamenduen sortak. 300 eurogatik: **OPARIA, SOLARIUM-ERAKO BONOIA (11 SAIO)** 150 eurogatik: **OPARIA, MAKILLAJEA ETA FROGA**  
 4 gorputz tratamendu saioko sorta programa bakoitzeko: **SRA (ongizate eta erlaxapen) 230€** Zahartzaren kontrako tratamendua (bigundursk) **230€** **Drainatu, zelulitisaen aurkakoak (zelulitisa, gizentasuna) 230€** **OPARIA: 30 - 40 EUROKO BALIOA DUEN TRATAMENDURAKO PRODUKTUA**  
 Eskolapietako Lortzeagatik, 3 20400 Tolosa • Tel: 943.675.489

AITOR TEJERIA ▶ ZUTE ILEAPAINDEGIA

# «Egun, bakoitzaren ile motari egokitutako ile mozketak egiten dira»

Ile luzea eramatea dago orain modan, bai nesken eta baita mutilen artean ere; kolore deigarriak baztertu eta naturaletako joera ere nabarmena da

Zute ileapaindegian aritzen da Aitor Tejeria bere lan taldearekin bertara inguratzen direnei ile orrazkera desberdinak proposatzen. Bere eguneroko lanaren inguruan egungo joerak, modan dauden koloreak... azaldu dizkio HITZARI.

## Zein da denboraldi honetako joera?

Guk, normalean Londreseko joerak hartzen ditugu erreferentzia gisa. Ile mozketako deskonektatuak eta agresiboak daude modan. Baita koloreei dagokionez ere. Hori ikuskizun batean ondo geratzen da, janzkera, makilaia... horri egokitzen baitiote; baina, gero hori eguneroko bizitzara egokitzea oso zaila da. Modan dagoen ildo jarraituz ile mozketak leunagoetara jotzen dugu.

## Ile luzea ala motza eramaten da?

Era guztietako ile mozketak egiten ari gara; hala ere, ile luzea motza baino gehiago eramaten dela esan daiteke. Berezi, luzera ertainak daude modan. Mutilen kasuan, ile luzea, flekilo luzeak... uzteko joera nabarmena da.

## Kolore biziak ala suabeak?

Gure joera kolore naturalen aldekoa da. Bezeroa ileapaindegian sartu edota ateratzen denean daraman orrazkeraz gain, bezeroaren erosotasunerako erraz moldatzeko moduko orrazkerak egiten ditugu. Gauzak horrela, ileko kolorea ondo mantentzeko eta hilabetera kolorearen zuztarra ez nabaritzeko ez ditugu oso kolore markatuak ematen. Kolore naturalerara jotzen dugu guk. Fantasiako koloreak ez daude batera modan.

## Zein da orduan denboraldi honetako kolore nagusia?

Marroia, hur edota txokolate kolorea... aipatuko nituzke. Mutilen kasuan, kolorea ematera ausartzen diren gehienek dekoloratu egiten dute.

## Modan dauden orrazkerak eskatzen al dizkizute?



O.ESKITXABEL

az gain kontutan hartzen dituzten horietakoak dira, orduan.

Bezero gehienek gure eskuekin uzten dute ilearekin zer egin. Guk, bezeroaren janzkera, estiloa, lanbidea... hartzen ditugu kontuan. Ile motaren arabera joera bat indarrean zegoenean denek eramaten zuten, ile mota edozein izanda ere. Orain, ile mozketak pertsonalagoak izaten dira norbere ile motari egokitutakoak. Hemen estilo informaleko aldizkariak ere izaten ditugu eta bertan kaleko estiloko orrazkerak ikus ditzakete bezeroek.

## Ilea moztu eta orraztu ondoren makillaje pixka bat ere ematen diezue bezeroei. Gus-tuko al dute?

Ukitu bat besterik ez da izaten eta bezeroak oso gustura irten dira ez delako oso nabarmena izaten. Makillajearen joera naturala eramaten da; begiak pixka bat markatzearekin batera ezpainak margotzen dizkiegu. Kolore suabea, batez udaberrian eta udaran; neguan berriz, ezpainetan kolore gehiago jartzeko joera dago.

## Ileapaindegitik oso orraztuta ateratzea ez dute gustuko askok.

Horrela da; jendeari ez zaio gustatzen ileapaindegian izan dela nabaritzea. Ileapaindegitik atera eta etxean ilea garbitzen dute askok. Hori ez gertatzeko, hemen bezeroa eroso ibiltzeko ahalik eta modu naturalenean uzten diegu egindako orrazkera.

## Ilea egoera onean mantentzea ere garrantzitsua dela diozu.

Ilea zaintzea oso garrantzitsua da. Ilea moztu eta orrazteaz gain, bezeroak hezitzen saiatzen gara. Norberaren ileak eskatutako produktuak erabiltzea gomendatzen diegu.

## Zein gomendio emango zenituzke?

Txanpu on bat erabiltzea ezinbestekoa da. Larruazaleko arazo asko ditu jendeak eta hori ekiditeko txanpu bereziak erabiltzea oso garrantzitsua da. Ile luzea duten pertsonen garbitu ondoren, puntetan ile egokitzaila erabiltzea gomendatzen diegu puntak itxita mantentzeko eta orrazterakoan ilea ez hausteko. Amaierako produktuak ere oso onak dira, etxean ilea garbitu ondoren ezer ematen ez badugu, orrazkerak graziatzen dute.

### EROSOTASUNA

«Bezeroaren erosotasunerako erraz moldatzeko moduko orrazkerak egiten ditugu»

Gure bezeroak gazteak dira, hamabost eta berrogehitabost urte bitartekoak; eta, orokorrean, ez dira beti ilea berdin era-

### SORMENA

«Eguneroko lan mekanikoa gainditu eta sormena lantzeko aukera ahalbidetzen digute bezeroek»

maten duten horietakoak; orrazkera aldatzea gustatzen zaie. Gure lanean, eguneroko lan mekanikoa gainditu eta

### PRODUKTUAK

«Larruazaleko arazo asko ditu jendeak eta hori ekiditeko txanpu bereziak erabiltzea oso garrantzitsua da»

sormena lantzea garrantzitsua da eta ditugun bezeroek aukera hori eskaintzen digute. **Zuen proposamenak entzute-**

**HITZA**, eskualdeko plaza  
661 678 818  
Toki aproposa iragartzeko

**ARKUPE**  
Tel.: 943 11 70 53  
Letxuaga kalea, 4 behe • TOLOSA

**Orizudar**  
Kortsetegia, mihi sedenda, pijamak eta osagarriak  
TOLOSA  
Tel.: 943 67 87 71

**M. Josune**  
• ILEAPAINDEGIA  
• EDERTEGIA  
• ESQUAPAINKETA  
Korreo, 60 • TOLOSA  
Tel.: 943 67 41 07